

## **UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2013ko IRAILAREN 16an IZANDA- KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-**

Batzarreratuak:

- Esperanza Uriarte Andrea (Euskara Zinegotzia)
- Gernikako AEK-ko ordezkariak
- Allende Salazar ikastetxeko ordezkaria
- San Fidel Ikastolako ordezkaria
- Seber Altube Ikastolako ordezkaria
- Barrutia Ikastetxeko ordezkaria
- Mertzede ikastetxeko ordezkaria
- Gernika Institutuko ordezkaria
- Barrutialde Institutuko ordezkaria
- Helduen Heziketarako Ikastegiko ordezkaria
- Inmigrazio teknikaria (Mankomunitateko ordezkaria)

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I)

- Ezin etorria zuritu du Iñaki Gorroño jaunak (Hezkuntza Arloko Zinegotzia).

Hasiera ordua: 10,00

Amaiera ordua: 11,30.



**1.- 2012-2013 IKASTURTEAN IKASLE ETORKINEI  
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN  
EMAITZAK AZTERTU ETA 2013-2014 IKASTURTERAKO  
ESKAINITZA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak egin du 2011-2012 ikasturteko ikastaroaren balorazioa:

- Bi talde aritu izan dira; 15 ikasle “0” mailan emaitza onak izanik, eta “hobekuntza” mailan 11 ikasle.
- Parte-hartzeari dagokionean, gogotsu aritu izan ziren (“0” mailan 3 baja eta “hobekuntza” mailan 2 ikaslek izan dute jarrera txarra).
- Aurreko ikasturtean bezala, emaitzei eta helburuei dagokionean, lorpenak hobekuntza mailan (11 ikasleetatik batek 5, 3k 4 puntu eta beste 3k 3 puntu) hasiera mailan baino (15etik batek 4 puntu eta 8k 3 puntu).
- GUGAZTE proiektuarekiko loturaren berri eman du, ikastaroko ikasleak proiektu horretako ekintzetan partaide izan direlako (tailerrak).
- Ikasleen artean gehienak errumaniarrak dira, baina hainbat jatorritakoak izan dira (sahara, bolibia, txina, marroko).

Euskara Zinegotziak azpimarratu du GUGAZTE proiektuaren inguruko bi deialdi egin diren arren, ez dutela erantzunik handirik izan eta denon inplikazioa beharko lukeela etorkin gazteei begirako egitasmo horrek jarraipena egiteko. Datorren urtarrilean beste batzar baterako deia egingo dela azaldu du.

Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:**

**1).- Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, hasiera maila eta hobekuntza maila).**

**2).- Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 4. Ikasle bakoitzaren fitxa:**

- **Izen-abizenak.**
- **Jatorria eta udalerrira noiz etorria.**
- **Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)**
- **Kontaktorako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.**



2)- Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.

3).- Ikastaroa Mertzede ikastetxean garatuko da (bigarren urtea), 2009-11-05eko bilkuran erabakitakoari jarraituz. 2014-2015 ikasturtean San Fidel Ikastolari dagokio.

## 2.- GURASOEI EUSKALDUNTZERAKO DOAKIEN ESKAINTZA AZTERTU

Batzordeko idazkariak argitu du batzar honetan banatuko direla kanpainaren zabalkunderako fotokopiak eta lehenbailehen banatzeko eskaera egin du, matrikulatzeko epe muga urriaren 10a izango delako.

AEKko ordezkariak aurreko ikasturteko balorazio orokorra egin du: guztira 70 guraso aritu izan dira 5 taldetan, oso arrakastatsua (2010-2011 ikasturtean 25 aritu ziren eta 2011-2012koan 42). Hiru talde goizez eta 2 gauez. Azpimarratu egin du gurasoen artean etorkinen portzentajea nabarmena izan dela eta izena eman zuten guraso batzuk kanpoan geratu zirela ordutegi arazoak bitarteko.

Aurreko ikasturteko gurasoen erdiak interesatuta daude honez gero jarraitzeko eta Udaleko Euskara Sailarekin egindako hausnarketaren ondorioz, aurtengo baldintza orokorrak egokitu egingo dira.

### Erabakia:

1).- Matrikula gisa 60 € kobratuko dira, matrikularen %25. Gainerakoa Udalak jarriko du.

2).- Zorrotz jokatu da azpimarratuz titulaziorako ikastaroa ez dela, hastapenerako baino.

3).- Epe muga matrikulatzeko: urriak 4 (plaza mugatuak izango dira).

4).- Ikastaroaren ordu kopurua 120 ordu, urritik ekainera. Ordutegia ikasleen gogoetara egokitzeko ahalegina egingo da.



### **3.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: 2012-2013 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEKO IRIZPIDEAK AZTERTZEA**

Batzordeko idazkariak azaldu du 2012-2013 ikasturteko diru laguntzak ordaintzeke daudela abuztuaren 28an onartu delako Udal aurrekontua. Murrizketa egon denez, 2012ko irailaren 27ko batzarreko erabakiari jarraituz (“...2).- *Bestalde, 2013ko aurrekontuan murrizketak izateagatik irizpide horiek betetzea eragotziko balitz, hurrengo batzar bat egingo da banaketa irizpideak berraztertzeke...*”) dakargu gai hau batzar hobetara.

Eztabaidatu ondoren, Gernika Institutuko ordezkariak proposatu du iazko irizpideak mantentzea, nahaste handia litzatekeelako orain aldaketa egiten hasia eta ikasturtea behin igaro denez diru kontuak ere zentro guztietan eginda daudelako. Hurrengo ikasturterako baina, irizpideak aldatu beharra aldarrikatu du, desoreka nabarmena dagoelako: indarrean dauden irizpideekin diru laguntza finkoen alde jokutzen da (antzerkia, abesbatzak, idazlan koadernoak, dantza), ikasle kopuruaren arabera diru laguntzaren kalterako. Gainera, badaude beste egitasmo batzuk diru baliabide asko eskatzen dutenak, kasurako Bertsolaritza, eta ez dutenak diru laguntza finkorik.

Eztabaidatu ondoren, **hauxe erabaki da:**

**1).- Eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako 2012-2013 ikasturteko diru laguntzak banatzeko, aurreko ikasturtean erabilitako irizpideekin jarraitzea:**

a).- Zentro guztiei gutxienezko 400 eurokoa ematea eta gainerakoa zentro bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera banatzea.

b).- Eskola Kontseiluaren Batzordetik koordinatzen diren ekintzak direla-eta (antzerki astea, abesbatzen kontzertuak, dantzari eguna, idazlan koadernoak), zentro bakoitzari parte hartzen duen ekintza bakoitzeko kopuru finko bat ematea (500 euro; dantzarako 2.300 €).



**2).- 2013-2014 ikasturterako irizpideak aldatzeko, datorren irailaren 25ean, 10:00etan, batzar bat egitea aztergai bakar horrekin.**

**4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2013-2014 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIARNE EGOKIPENAK AZTERTZEA.**

Batzordeko idazkariak informazioa eskaini du banatutako orrialde baten arabera. Kasu honetan ere, azken hiru urteetan diru laguntza kopuru orokorra murriztuz joan da eta irizpideak, ostera, mantendu. Beraz, desorekak sortzen izan direnez, hausnarketaren beharra aipatu du. Gainera, araudian egokipen formalak egin behar izan dira, Udalak onartu zuen Diru Laguntzak emateko Ordenantza Orokorreara doitzeko.

Eztabaidari ekin ondoren, hauxe erabakia da:

**1).- Araudiaren egokipena onartu (ikus 1. eranskina), arau orokorren atala batik bat.**

**2).- Diru laguntza deialdia egitea 2013-2014 ikasturterako eta eskabideak aurkezteko hilabeteko epea finkatzeko, deialdiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatuta.**

**3).- Diru kopuru orokorra 14.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren arau berezia honela geratuko da:**

**a).- 700 € gutxienekoa, zentro bakoitzari.**

**b).- 6.100 €ikasle kopuruaren arabera banatzeko.**

**c).- Gainerakoa (3.000 €) egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa.**

**4).- Seigarren arau berezia ere egokitu: gutxieneko aurrekonturako 2.000 €finkatu eta gehieneko aurrekonturako 6.000 €**

## **5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.**

Deialdiarekin bidalitako eranskinak aztertu dira, hurrengoak azpimarratuz:

**a).- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALAGOA.**- Batzordeko Idazkariak azalpenak eman ditu; 2013ko Euskarazko Produktuen Katalogoaren zabalkunderako kanpaina iazkoaren parekoa izango ei da eta zentroetan fotokopiak banatzeko bidaliko direla. Aurten ere, Euskara Sailaren asmoa jostailu saltokiekin harremanak landu eta kanpaina berezia burutzea da. Katalogoa bera ez da banatuko, baina bai egingo da zabalkundea internet bidez bertara jotzeko.

### **Erabakia:**

**Euskarazko Produktuen katalogoari buruzko informazioa LH eta DBHko ikasle guztiei banatuko zaie (orri berezia), ploter bereziak jarriko dira jostailu dendetan eta euskarazko produktuetan %5eko deskontua izango da kanpainako saltokietan.**

**b).- EUSKARA ZINE ARETOETARA.**- Batzordeko Idazkariak Tinko Elkartearen eta Irudi Biziak enpresaren eskaintzen berri eman du eta gaineratu zentro bakoitzak askatasunez aukera ditzakeela bata edo bestearekin zein biekin egokien jotzen dituzten filmak.

**c).- GAZTEZULO ALDIZKARIAREN PROPOSAMENA.**- Aurreko ikasturtean izandako esperientziari buruzko txostenaren emaitzak aztertu dira eta oso positibotzat jo ere. Euskara Arloak eskaintza hori 2013-2014 ikasturterako errepikatzea erabaki du eta DBHko 4. mailako ikasleei zuzentzea (zentroak beste maila batekin lantzea erabaki dezake, Barrutialdek batxilergo 1. mailarekin egiten duen moduan). Hemen ere aurrekontuaren arabera jokatu da (harpidetza sei hilabetekoa edo gutxiagokoa, partidaren arabera).



## **Erabakia:**

- 1).- Erabakia: Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintzari eustea, datorren urteko aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera.**
- 2).- Egitasmo honi lotuta hurrengo faseak betetzea zentro bakoitzean:**
  - Gaztezulo aldizkariko arduradunak zuzenduko dira zentroetara, urrian gutunak gurasoei bideratzeko.
  - Azarotik apirilera bitartean doan banatuko zaie ikasleei, kasu bakoitzean zentroak finkatu moduan.
- 3).- Azken fasea, inkesta eta harpidetza sustapena, aldizkariak berak bideratu beharko du bere baliabideekin.**

## **6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Berriro egin da hurrengo batzarraren aipamena (urriak 25, goizeko 10:00etan), 2013-2014 ikasturteko eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntzak banatzeko irizpideak egokitzea helburu.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Euskara Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Esperanza Uriarte

Bittor Zarrabeitia

